

Euskal AEko zerbitzuen sektorea positiboan 2016ko lehen hiruhilekoan


Aurreko urtearen aldean, termino errealetan Merkataritzaren salmentak %2,4 gehitu eta Gainerako zerbitzuenak %4,0

2016ko lehen hiruhilekoan, zerbitzuen sektorea positiboan, bai urte artean, bai hiruhileko artean, Eustaten datuen arabera.

Merkataritzan (handizkakoa, txikizkakoa, ibilgailuen salmenta eta konponketa), %2,4; Gainerako zerbitzuetan %4,0; aurreko urteko hiruhileko beraren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Aurreko hiruhilekoaren aldean Gainerako zerbitzuetan %1,1 eta Merkataritzan %0,3, urtaro-eraginak kenduta.

**Euskal AEko merkataritzako koiunturako indizearen eta gainerako zerbitzuenaren urte arteko aldakuntza tasa. Egutegi-eraginak zuzenduta (%)
Prezio finkoak**



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzan urte arteko positiboa sektore guztietan, indar ezberdinez: Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %11,8 gehitu da, Handizkako merkataritzaren salmenta-indizea %2,1, Txikizkakoarena %1,9.

Beste zerbitzuetan, termino finkoetan: Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoena %10,9 gehitu; Ostalaritzarena %7,2; Informazio eta komunikazioena %3,8; Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuena %3,3. Garraio eta biltegiatzea %0,9 jaitsi.

Gipuzkoan Merkataritzaren bilakaera aipatu behar; Araban eta Bizkaian Gainerako zerbitzuena. Araban Merkataritza %3,3 gehitu eta Gainerako zerbitzuak %4,6; Bizkaian %1,3 eta %5,4; Gipuzkoan %3,9 eta %1,2. 2015eko lehen hiruhilekoaren aldean eta prezio eraginik gabe.

Euskal AEn, langile okupatuak %1,0 gehitu Merkataritzan eta %1,7 Gainerako zerbitzuetan, urte artean. 2015eko laugarren hiruhilekoaren aldean, indizea %0,5 gehitu Merkataritzan eta %0,2 jaitsi Gainerako zerbitzuetan, urtaro eraginik gabe.

1. taula. Euskal AEko Merkataritza koiantura-indizea eta Bestelako zerbitzuak koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). I/2016

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
Merkataritza	1,3	-0,1	2,4	0,3
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	10,6	4,1	11,8	5,3
Handizkako merkataritza	-0,1	-1,3	2,1	-0,1
Txikizkako merkataritza	1,9	0,2	1,9	0,6
Bestelako zerbitzuak	5,5	1,7	4,0	1,1
Garraioa eta biltegiatzea	-0,3	-2,7	-0,9	-1,3
Ostalaritza	10,1	3,0	7,2	1,7
Informazioa eta komunikazioak	6,8	3,5	3,8	3,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	11,9	5,5	10,9	6,1
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	4,7	2,9	3,3	2,6

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Zerbitzuen koiantura-indizea (ZKI). Prensa-oharrak Interneten

Euskal AEko Zerbitzuen koiantura-indizea (ZKI). Datu-bankua